



Donostiako Udala  
Ayuntamiento de San Sebastián

## Mugikortasuneko Kontseilu Sektoriala – Eraketa bilera

### Consejo Sectorial de Movilidad – Sesión Constituyente

<b>Deialdia egin duena</b> Convoca	<b>Donostiako Udala</b> Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián
<b>Data, tokia eta ordua</b> Fecha, lugar y hora	<b>2015eko azaroaren 9a</b> / 9 de noviembre de 2015 <b>Prensa Sala</b> /Sala de Prensa <b>18:05etan</b> / A las 18:05 horas
<b>Amaiera ordua</b> Hora de finalización	<b>19:15tan</b> / A las 19:15 horas

#### GAI-ZERRRENDA:

##### ORDEN DEL DÍA:

<b>1. Kontseiluko Lehendakariaren agurra eta Mugikortasun Kontseilu Sektoriala eratzea</b>	1. Saludo de la Presidencia del Consejo y Constitución del Consejo Sectorial de Movilidad
<b>2. Kontseilua osatuko duten eta ez duten gizarte ospe-bereziko kolektiboen inguruko Lehendakariaren proposamena eta bozketa Bilkuran.</b>	2. Propuesta de la Presidencia en relación a la integración o no en el Consejo de los colectivos de especial relevancia social y votación en Pleno.
<b>3. Bilkurako Kide bakoitzaren aurkezpena.</b>	3. Presentación de cada miembro del Pleno.
<b>4. Kontseiluaren antolaketari buruzko argibideak: arautegia, funtzionamendua, organoak...</b>	4. Información sobre la organización del Consejo: reglamento, funcionamiento, órganos...
<b>5. Lehendakaritzak kontseilurako aurreikusitako ardatz nagusiei buruzko aurkezpena egingo du.</b>	5. Exposición por parte de la Presidencia de las líneas generales previstas en relación al Consejo.
<b>6. Kontseiluko Lehendakariordearen aukeraketa bozka bidez.</b>	6. Elección mediante votación de la Vicepresidencia del Consejo.
<b>7. Hurrengo bilkuran Batzorde Iraunkorra aukeratzeko prozeduraren eta 2016 urterako plangintza egiteko informazioa.</b>	7. Información sobre el procedimiento de elección de la Comisión Permanente y la planificación del Consejo en el año 2016

**BILERAN PARTE HARTU DUTE:**  
HAN ASISTIDO A LA SESIÓN:

<b>KONTSEILUKO LEHENDAKARITZA</b> PRESIDENCIA DEL CONSEJO	Pilar Arana (EAJ-PNV) <b>Mugikortasun eta Garraioko zinegotzi ordezkaria</b> Concejala delegada de Movilidad y Transporte
<b>TALDE POLITIKOEN ORDEZKARIAK</b> REPRESENTANTES GRUPOS POLÍTICOS	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. <b>EAJ-PNV</b></li> <li>2. <b>PP</b></li> </ol>
<b>KONTSEILUKO BOKALAK</b> VOCALES DEL CONSEJO	<ol style="list-style-type: none"> <li>1. "LANTXABE" Auzo Elkartea / Asoc. Vecinal LANTXABE</li> <li>2. Asociación Radio Taxi Donosti</li> <li>3. Asociación Radio Taxi Donosti</li> <li>4. <b>BEGIRIS ELKARTEA</b></li>   <li>5. <b>ELKARTU ( Gipuzkoako Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Federazioa / Federación de Personas con Discapacidad Física de Gipuzkoa</b></li> <li>6. <b>ELKARTU</b></li> <li>7. <b>Gipuzkoako Merkataritza Federazioa / Federación Mercantil de Gipuzkoa</b></li> <li>8. <b>KALAPIE Hiriko Txirrindularien Elkartea</b></li> <li>9. <b>Real Automovil Club Vasco Navarra</b></li> <li>10. <b>Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintzritzak / Autorizada Territorial del Transporte de Gipuzkoa</b></li> <li>11. <b>Donostiako Tranbia Konpainia / Compañía del Tranvía de San Sebastián</b></li> <li>12. <b>Donostiako Tranbia Konpainia / Compañía del Tranvía de San Sebastián</b></li> <li>13. <b>Cristina Enea Fundazioa / Fundación Cristina Enea</b></li> <li>14. <b>Sshops Donostia San Sebastián</b></li> <li>15. <b>1. Herritar norbanakoa / Representante ciudadano nº 1</b></li> <li>16. <b>2. Herritar norbanakoa / Representante ciudadano nº2</b></li> <li>17. <b>3. Herritar norbanakoa / Representante ciudadano nº3</b></li> <li>18. <b>4. Herritar norbanakoa / Representante ciudadano nº4</b></li> </ol>
<b>ETORRI EZ DIRELAKO DESENKUSATU DIRA</b> EXCUSARON SU ASISTENCIA	

<b>UDAL TEKNIKARIAK</b> PERSONAL TÉCNICO MUNICIPAL	<b>Mugikortasun Saileko zuzendaria</b> / Director del Departamento de Movilidad	Angel Querejeta
<b>AHOLKULARITZA</b> <b>TEKNIKOA</b> ASESORIA TÉCNICA	<b>Kontseiluaren Idazkaritza. Mugikortasuneko Administrazio Ataleko burua</b> / Secretaría del Consejo. Jefa de Sección Administrativa de Movilidad Director del Departamento de Medio Ambiente <b>Haizea Ikerketa S.L</b>	Josefa Estrella  Leire Sarobe Maider Etxaide
<b>PARTAIDETZAREN DATUAK</b> DATOS DE PARTICIPACIÓN	<p><b>20 MKSeko pertsona kideak jarraian adierazten direnez gain: Mugikortasuneko zinegotzia, zinegotziaren aholkularia 1, Kontseiluko idazkaria, 1 udal ordezkari teknikoa (zuzendaria) eta laguntza teknikoko 2 ordezkari.</b></p> <p><b>Emakumezkoak / Mujeres = 6</b> <b>Gizonezkoak / Hombres = 14</b></p> <p>20 personas integrantes del CSM, además del concejal delegado de Movilidad, la secretaria del Consejo, 1 representante del cuerpo técnico municipal (director) y 2 personas de la asistencia técnica.</p>	
<b>KONTSEILUKO IDAZKARITZA:</b> SECRETARÍA DEL CONSEJO:	<b>Mugikortasunerako Zuzendaritza</b> – Dirección de Movilidad: Urdaneta 13, 3º / 943 481380 / <a href="mailto:mugikortasuna@donostia.eus">mugikortasuna@donostia.eus</a>	

**SAIOAREN BILAKAERA:**  
**DESARROLLO DE LA SESIÓN:**

**1. Kontseiluko Lehendakariaren agurra eta Mugikortasun Kontseilu Sektoriala eratzea**

Lehendakariak bertaratutakoak agurtu ondoren, eztabaidarako gai ei helduko ez dien eratzte Saioari hasiera ematen diola adierazten du. Horrekin batera, Mugikortasun Kontseilu Sektoriala eratutzat jotzen du.

**2. Kontseilua osatuko duten eta ez duten gizarte ospe-bereziko kolektiboen inguruko Lehendakariaren proposamena eta bozketa Bilkuran.**

Idazkaritzak azaltzen du hemendik aurrera honako lau talde hauez eratuta egongo dela Osokoa: udal erregistroan izena emana duten herritarren elkarteak, zozketa bidez aukeratutako pertsona fisikoak, gizarte ospe bereziko pertsona edo taldeak eta talde politikoetako ordezkariak. Gelan daudenak pertsona fisikoak eta herritarren elkarteak dira, haietako bi Kontseilu honetan berriak (Lantxabe eta Begiris). Ospe bereziko pertsona eta taldeak gelako ate atzean dira Kontseiluan sarrera emango dien bozkaren zain.

Halaber, aditzera ematen da Mugikortasun Kontseilu Sektorial berrian sartzeko eskaera egin duten ospe bereziko zortzi entitateek aurretik ere Kontseiluko kide zirela eta eskaera berri bakarria egon dela, Garraioaren Lurralde Agintaritzaren aldetik eginikoa alegia.

Gizarte ospe bereziko entitateen onarpen prozedura bozketa publiko bidez egin behar dela eranstu du, entitate bakoitzari boto bakarria dagokiolarik.

Aurreko Kontseiluaren partaide zirenen eta lehen aldiz eskaera luzatu dutenen inguruko bozka era berezian egitea proposatzen da.

Quoruma badagoela segurtatu ondoren bozkatzeari ekiten zaio, ondoko emaitzarekin:

1 bozka : Aurretik Kontseiluaren partaide ziren entitateak

Aldeko botoak: 12, Aurkako botoak: 0, Abstentzioak: 1

2 bozka: Entitate berria (Garraioaren Lurralde Ordezkaritza)

Aldeko botoak: 11, Aurkako botoak: 2, Abstentzioak: 1

Bozkaren emaitza gisa, ospe bereziko entitate guztiak Mugikortasunaren Kontseilu Sektorialaren kide gisa onartutzat ematen dira eta, ondorioz, gelan sartzeko gonbidapena luzatzen zaie.

**1. Saludo de la Presidencia del Consejo y Constitución del Consejo Sectorial de Medio Ambiente**

Tras saludar a las personas presentes, la Presidenta explica que se trata de una sesión constituyente en la que no se abordarán temas de debate. Tras lo cual declara constituido el Consejo Sectorial de Movilidad.

**2. Propuesta de la Presidencia en relación a la integración o no en el Consejo de los colectivos de especial relevancia social y votación en Pleno**

Desde la Secretaría se explica que a partir de ahora el Plenario estará conformado por tres tipos de grupos: entidades ciudadanas inscritas en el Registro municipal, personas físicas elegidas por sorteo y personas o colectivos de especial relevancia social. Quienes se encuentran presentes en la sala son las personas físicas y las entidades ciudadanas, dos de las cuales son de nueva incorporación (Lantxabe y Begiris). Las personas y colectivos de especial relevancia social se encuentran fuera de la sala a la espera de la votación para su integración en el Consejo.

Se informa asimismo que ocho de las entidades de especial relevancia social que se han postulado para su integración en el nuevo Consejo Sectorial de Movilidad formaban parte del Consejo con anterioridad y que ha habido una única nueva solicitud, la realizada por parte de la Autoridad Territorial del Transporte.

Por otro lado, se explica que el procedimiento de aceptación de las entidades de especial relevancia social se lleva a cabo mediante votación pública, correspondiendo un único voto a cada entidad.

Se propone votar separadamente la integración del grupo de entidades que anteriormente formaban parte del Consejo y la de la entidad que lo ha solicitado por primera vez.

Tras comprobar la existencia de quórum se procede a la votación con el siguiente resultado:

Votación 1: Entidades que anteriormente formaban parte del Consejo

Votos a favor: 12, votos en contra: 0, Abstenciones: 1

Votación 2: Nueva entidad (Autoridad Territorial del Transporte)

Votos a favor: 11, votos en contra: 2, Abstenciones: 1

A resultas de la votación, todas las entidades de especial relevancia social quedan admitidas en el Consejo Sectorial de Movilidad y, en consecuencia, se les invita a que entren en la sala.

### 3. Bilkurako Kide bakoitzaren aurkezpena.

Bertan dauden entitate eta udal ordezkari guztiek beren buruaren aurkezpena egiten dute.

### 4. Kontseiluaren antolaketari buruzko argibideak: arautegia, funtzionamendua, organoak...

Idazkaritzak jakinarazten du hurrengo bilkuratek aurrera euskarazko bat bateko itzulpen zerbitzua eskainiko dela. Bestalde, Kontseilu Sektorialaren organo desberdinen funtzioen deskribapena egiten da: Lehendakaritza (Kontseilua zuzendu, gai zerrenda finkatu, saioetan buru izan, proposamenak udal gobernuari eraman, etab.), Lehendakariordetza (Lehendakari laguntza eman eta Batzorde Iraunkorraren eta Lan Taldeen koordinazioa egin, besteak beste), Idazkaritza (lehendakariari laguntza eman, proposamenak jaso, akta jaso, etab.), Osoko Bilkura, Batzorde Iraunkorra (programa eta urteko egutegia proposatu, saio bakoitzaren gai zerrenda egituratzen lagundu, Lan Taldeak eratzen lagundu, etab.) eta Lan Taldeak. Lehendakariordetza eta Batzorde Iraunkorra lehendik ez zeuden organoak direla azaltzen da eta haietako lehenengoa Mugikortasun Kontseiluaren ordezkari izango dela Hiriko Gizarte Kontseiluan eta bigarrena, berriz, Osoko Bilkuren arteko aldietan aktibo egongo dela. Batzorde Iraunkorraren kideak hurrengo bileran bozkatuko direla argitzen du baita ere Idazkaritzak.

### 5. Lehendakariak kontseilurako aurreikusitako ardatz nagusiei buruzko aurkezpena egingo du.

Lehendakariak azaltzen du legealdi programan jasotako ildoak hartzen direla abiapuntutzat eta, beraz, hauek oinarri hartuz lan egiten hastea dela xedea. Ildoak webean argitaratuta daudela eranstean du.

### 6. Kontseiluko Lehendakariordearen aukeraketa bozka bidez.

Idazkaritzak bozka egiteko moduaren inguruko azalpenak eskaintzen ditu: soilik erregistratutako 7 entitateek aurkez lezaket beren hautagaitza baina partaide diren pertsona eta entitate oro dago bozketara deitua. Kargua boto gehien lortuko duen hautagaiak eskuratuko du eta bigarren lekuan geratuko denak ordezkari postua beteko du.

Ondoko erakundeetako ordezkariak aurkezten dute hautagaitzara beren burua: RACV (1 Hautagaia) eta Lantxabe (2 Hautagaia). Jarraian bozkatzeari ekiten zaio, ondoko emaitzekin:

11 boto 1. Hautagaiaren alde eta boto 1 2. Hautagaiaren alde. RACV-eko ordezkaria Lehendakari gisa hautatua geratzen da eta Lantxabeko kidea, berriz, ordezkari gisa.

### 3. Presentación de cada miembro del Pleno

Se realiza una ronda de presentación por parte de cada entidad y representantes municipales presentes.

### 4. Información sobre la organización del Consejo: reglamento, funcionamiento, órganos...

Desde la Secretaría se informa que se ofrecerá traducción simultánea a euskera a partir de la próxima reunión. Por otro lado, se describen las funciones de los distintos órganos del Consejo Sectorial: Presidencia (dirigir el Consejo, fijar el orden del día, presidir las sesiones, trasladar las propuestas al gobierno municipal, etc.), Vicepresidencia (funciones de asistencia y colaboración con la Presidencia, así como coordinación de la Comisión Permanente y los Grupos de Trabajo y representación de este Consejo en el Consejo Social de la Ciudad, entre otras), Secretaría (asistir a la presidencia, recoger las propuestas, levantar el acta, etc.), Pleno, Comisión Permanente (proponer el programa y el calendario anual, colaborar en la elaboración del orden del día de cada sesión, proponer la creación de Grupos de Trabajo, etc.) y Grupos de Trabajo. Se especifica que la Vicepresidencia y la Comisión Permanente son órganos que no existían con anterioridad y que el primero de ellos representará al Consejo de Movilidad en el Consejo Social y el segundo estará activo en los períodos entre Plenos. Las vocalías de la Comisión Permanente se votarán en la siguiente sesión.

### 5. Exposición por parte de la Presidencia de las líneas generales previstas en relación al Consejo

La Presidencia informa que se parte de las líneas contempladas en el programa de legislatura, siendo, por tanto, el objetivo comenzar a trabajar en base a ellas. Añade que dichas líneas se encuentran publicadas en la web

### 6. Elección mediante votación de la Vicepresidencia del Consejo

Desde la Secretaría se explica el procedimiento para la votación: tan sólo pueden ofrecer su candidatura las 7 entidades registradas si bien todas las entidades y personas integrantes están llamadas a participar en la votación. Obtendrá el cargo quien logre mayor número de votos y quien quede en segundo lugar ocupará el puesto de sustitución del mismo.

Los representantes del RAC (Candidatura 1) y Lantxabe (Candidatura 2) presentan su candidatura y se procede a la votación con los siguientes resultados:

11 votos a favor de la candidatura 1 y 1 voto a favor de la Candidatura 2. Queda elegido como Vicepresidente la personal representante del RAC y como suplente la representante de Lantxabe.

## 7. Hurrengo bilkuran Batzorde Iraunkorra aukeratzeko prozeduraren eta 2016 urterako plangintza egiteko informazioa.

Batzorde Iraunkorra Lehendakaritzak, Lehendakariordetzak eta gehienez beste 5 kide gehiagok osatuko dutela azaltzen da. Azken kide hauek erdia elkarteak izango dira eta beste erdia ospe bereziko pertsona edo taldeak nahiz pertsona fisikoak. Kontseiluaren hurrengo saioan hautatuko dira.

3 asteko epea eskaintzen da hautagaiak aurkezteko eta baita ere 2016an eztabaidatu nahi diren gaiak proposatzeko. Epe horretan proposamenak Kontseiluaren Idazkaritzara bidali beharko dira.

Mugikortasun Zuzendariak ohartarazten du Mugikortasun Kontseiluaren egitura, funtzio edo funtzionamenduari buruzko zalantzak edukiz gero Mugikortasun Kontseilu Sektorialaren Araudira jo behar dela nahi eta nahi ez eta ez, ordea, saio honetan aurkeztu diren laburbildutako edukietan oinarritu.

Idazkaritzak gogorarazten du Kontseilu bileretara etortzea nahitaezkoa dela eta etorri ezin denean aurretik jakinarazi behar dela eta arrazoia justifikatu. Segidako bi bileretara justifikatu gabe etorri ez izanak entitateari Kontseilua utzaraztea ekar lezake.

Merkataritza Federazioaren ordezkariak saioan dauden entitateen artean zeintzuek duten euren lehen aldia jakin nahiko lukeela adierazi du. Lehen aldiz etorritakoek besoa jasotzen dute.

Etorritakoek Kontseilu hau aurrekoaren herentzia ote den ala zeretik abiatzen den zerbait ote den galdegin ondoren Mugikortasun Zuzendariak azaltzen du kontseilu sektorial guztien funtzionamendua berdintzeko xedez arautegi berria sortu duela Udalak eta, ondorioz, kontseilu guztiek egokitzapena egitera behartuta daudela.

Idazkaritzak azaltzen du Kontseilu berriaren eraketaren inguruko balorazio txostenean aurreko Kontseiluan kide gisa parte hartu izana kontuan izan dela.

Bilera amaitzen da.

## 7. Información sobre el procedimiento de elección de la Comisión Permanente y la planificación del Consejo en el año 2016

Se explica que la Comisión Permanente está compuesta por la Presidencia, la Vicepresidencia y hasta un máximo de cinco vocales, la mitad asociaciones y la otra mitad colectivos o personas de especial relevancia social o personas físicas. Sus integrantes serán elegidos en la siguiente sesión del Consejo.

Se proporciona un plazo de 3 semanas para la presentación de candidaturas así como para proponer los temas que se deseen tratar en 2016, todo lo cual deberá ser remitido a la Secretaría del Consejo dentro de ese plazo.

El Director de Movilidad advierte que ante cualquier duda sobre la estructura, funciones y funcionamiento del Consejo de Movilidad es preciso recurrir a la lectura detallada del Reglamento del Consejo Sectorial de Movilidad y no basarse en los contenidos resumidos que han sido presentados en esta sesión.

Desde la Secretaría se recuerda que la asistencia es obligatoria y en el caso de no poder asistir se debe informar con antelación proporcionando la debida justificación. En el caso de dos faltas consecutivas sin justificación se puede llegar a determinar que la entidad deje de formar parte del Consejo.

El representante de la Federación Mercantil expresa el deseo de conocer qué entidades presentes en la sesión acuden por primera vez al Consejo. Alzan la mano quienes lo hacen por primera vez.

Ante la duda de si este Consejo es herencia del anterior o si se comienza de cero, el Director de Movilidad explica que el Ayuntamiento ha elaborado un nuevo reglamento para homogeneizar el funcionamiento de todos los consejos sectoriales por lo que todos los consejos están obligados a adaptarse al mismo.

Desde la Secretaría se explica que en el informe de valoración de candidaturas a este Consejo se ha tenido en cuenta la condición de antiguo miembro de organizaciones y personas.

Finaliza la reunión.